



2017 Udazkena



# EUSKAL HERRIA ETA BERE ERRESUMA HISTORIAN ZEHAR

## Askatasunaren kantua (Zenbait ohar eta iruzkin)

[Prehistoriatik datozkigun berri arkeologikoez gain, Euskaldunen lehen berri sozialak historialari greko eta erromatarrek eman zituzten. Ezagutzen diren lehen mugimendu eta jardura politikoak, hain zuzen, erromatar inperioaren garaikoak dira. Haren krisialdietan Euskaldunak -Akitanian barna eta- hainbat gatazkatan trabatuak ziren, tai gabe. **VI. mendetik goiti gero eta maizago eta antolatuagoak**, ifar eta hegoaldeko mugetan kokatuak ziren franko eta godoen aurka, ondotik arabe-ekikoan... (No cabe duda que una lucha tan prolongada tuvo que contribuir a que entre los vascones surgiera una organización que agrupara bajo el mando de unos jefes de prestigio a los hombres útiles para el ataque y para la defensa...; José M<sup>a</sup> Lacarra). Zenbait mende ezagutza politiko-militarrean trebatzen, antolamendu soziala garatzen eta buruzagitzak nabarmentzen jardun ondoren, beraz, oinarri sendoak ziren VIII/IX. mendeetan gertatutakoa ahalbideratzeko, ez zen inprobisazioaren ondorioa izan. Euskaldunen heldutasun politikoak gorenara iritsi zuen, Orreagan.]

**778-824: Fundazional garaia. Orreaga**-ko bi gatazkek garbi utzi zuten Euskaldunek – ‘baskoiek’ – metaturik zeukatela aski kontzientzia eta gizarte-kohesio, gaitasun estrategiko eta militar-garapen maila, goreneko egitura juridiko-politikoa sortzeko, erreinua. Xarlemagne boteretsua (karolingiar Inperioa) agudo ohartu zen, Orreagako galeraren ondoren. Testuinguru horretan, buruzagi-leinuen artean Aristatarrena nagusituz Iruñean, Eneko Aritza hautatua izan zen lehen errege gisa **Reino de Pamplona** izendatu zen hartan, Euskaldunek libreki sortu eta garatu duten bakarra. Euskal herriak **-subjektu politikoa-**, horrela, bere burua aurkeztuz, IX. mendeko Europako mapa politikoan kokatu zuen gainerako mailan.

Sozietate gentilizioaren eragin handikoa izanagatik, Euskaldunen jendartea garatuagoko mailan zegoen jada, Europako historian agertzen ari zirenen parekoa, sozial-egituraketari eta botere izaerari zegokienez. Beste nazioen antzera, sorrera politikoa gauzatu zen metaketa gertatutako eskualdean, baina, seguraski, euskal lurraldeetan barnako harreman-sarea uste ohi dugun baino handiagoa zelarik, Auñamendiren bi aldeetan. Horren oihartzun berezia da **Pasai Donibaneko** “Humilladero de la Piedad” delakoan dagoen inskripzioa: *In gratiarum actione pro victoria obtenta, et cumplimiento voti facti Deo et B. Maria S. V. era octogentesima decima cuarta, quando ibamus ab Orierriagam et Saltum Pirenei nunc de Roncos Valles praeliaturi contra exercitum Caroli Magni francorum regis cum nostro **Basconiae populo pro se et sociis de Pasage victoribus**. Joannes de Ubilla me fecit. 1580. urtean eraikina handitu zutelarik, espainolezko itzulpena ere eman zuten (jatorrizkoari jarraiki, 824. urtearen orde 814 aipatuz): “Dando las gracias por la victoria alcanzada y cumpliendo con el voto hecho a Dios y a la Bienaventurada Maria Siempre Virgen, en la era 814, cuando fuimos a Orierriaga y puerto del Pirineo, que ahora se llama Roncos Valles, a pelear contra el ejército de Carlo Magno, rey de los franceses [“francos” esan beharrean], **con nuestro pueblo de la Vasconia por sí mismo y sus compañeros del Pasage vencedores**. Joannes de Ubilla me hizo.”*

Urte batzuk geroxeago, Lope de Isasti historialariak berresten du euskal lurralde osoan zabaldua eta barnatua zatekeen lorpena: *Juanes de Ubilla, capitán valeroso que con gente del lugar fue a la batalla de Roncesvalles contra el ejército del emperador Carlomagno, donde*

*este fue vencido y muertos los doce pares de Francia*. Pasai Donibanekoa munta handikoa da; kostaldeko jendearen partaidetzaren lekukotasuna den heinean, pentsa liteke Orreagako gatazkak eta ondoko Iruñeko Erresumak garrantzi-oihartzuna izan zuela euskal populazio zabalean, ‘lorpen politiko propiotzat’ hartua izan zela, hasieratik. Inskripzioa egin zeneko garaia arte, XV. eta XVI mendeetan, jarraitu zuena eta gaur arte dirauena.

[Horiek hala, aski laster hedatu-garatu zen euskal lurraldeetara (eta haratago), garbi utziz zeintzuk ziren subjektu politikoaren buruzagientzako jatorrizko herri eta lurraldeak. Hasieratik ziren “**territorios patrimoniales del Reino**” gisa kontsideratuak, Erresumaren muina, eta horiek ziren primuaren esku uzten zirenak (haietan eman zituzten foruak, fundazional kartak... etab.); erreinua emendatuko zuten gainerakoak, beste seme-alaben artean banatu ohi ziren, maiz Nafar Erresumarekiko men eran.]

Hala ere, eraso eta lapurketak, traizio eta galerak... Alderdi guztietatik. Artean (XII. mendean), **Reino de Navarra** jada, **Antso Jakituna** (Sancho VI el Sabio) lurraldeak berreskuratzen eta mugak behin betiko finkatzen saiatu zen. Ingalaterrako Korua lagun eta senide zuen: **Berenguela/Berengaria alaba**, **Richard the Lionheart** (Rikardo Lehoi-bihotza/Ricardo Corazón de León/Richard Cœur de Lion) erregearekin esposatu baitzen, bi erreinuen arteko loturak estutuz. Baina Alfonso VIII Gaztelako erregea ere ez zen loturaren faltan, guraso beren -Akitaniako Aliénor/Eleonor dukesaren eta Ingalaterrako Henry II.ren- Leonor alabarekin ezkondu baitzen. Akitania (euskal lurraldeak barne), munta handikoa ingeles Koruan, Nafar Erresumarekin senidetua zen. Antso Handiaren garaian, eta ondotik, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa nafar koruarekiko loturan ziren; gero Akitania osoa ingeles Korura pasatu zenean, denboraldi batez N. Behereko ibarrak jareginik egon ziren, baina Rikardo ‘Lehoi-bihotzak’ atxikiarazi zituen berriz Nafar Erresuman. Lapurdik eta Zuberoak, beti ere, nafar koruarekiko harremanean segitu zuten. Baionak, adibidez, ingelesengandik burgo-karta lortuagatik (1215) -hots, Lapurdiko biltzar-‘kostumetatik’ haizu-, nafar- portua izaten jarraitu zuen. Baionak eta Lapurdik “patrimonial” izaten jarraitu zuten, haien zenbait estamentu Nafar Erresumaren erakundeetan txertatuta zeuden. Horretan denetan, amikuztar jatorriko Gramont (Agramont) sendia nabarmentzen da. XIII. mendean Bidaxunen kokatu zen, gaztelu ederra eraikiz bertan; gaur aurritan dagoena...]

Horiek hola, beraz, Antso Jakitunak, Gaztelako erregearen eraso eta lurralde- bahitzeekin amaitze aldera, **Henry II ingeles erregearen laudoa** (1179) eskatu zuen. Alfonso VIII.ak onartu zuen, bere aitagarreba baitzen. **Laudoan** Gaztelako eta Nafarroako erresumen arteko mugak zehaztu eta finkatu ziren: Nafarroakoa Castro-Urdiales-eraino iristen zen kostaldean, barnealdean Burgosko Ifarraldea (Belorado, Oña...), Larrioxako eskualde anitz, Soriako ifarraldea, Sobrarbe eta Ribagorza eta, noski, “patrimonialak”, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa...). Nazioarteko laudoa, uste izatekoa zen errespetatu beharrekoa zela...

Baina gutxi iraun zuen. Antso Jakituna hil eta laster, Bizkaiko Jauna, aldiz Nafarroari atxikia, aldiz Gaztelari, laster erabat Castillaren alde jo zuen, bere “askatasuna” atxikitze asmoz... Alfonso VIII.ak Nafar Erresuma higitzeko eta mendratzeko eraso abiaturik 1199an. **Gasteiz eta Araba** osoa urte batez setioan, 1200. urte arte, jarraian **Gipuzkoa**... Benetako borrokak eta erresistentziak. Konkistan oinarritu “eskubidea”, hots, “nulo de derecho”. Gaztelakoak bere testamentuan zioen Nafarroari itzuli behar zitzaizkiola lapurtutako lurraldeak, gero ere espainiar erregeek aldikal adieraziko zutena heriotz-atarian, “jainkoaren beldur”... Orain arte, noski.

[Nafar Erresuman jatorrizko dinastia agortu zenean Antso Azkarrarekin (1234. urtean), Champagneko Thibalt/Teobaldo I.a iritsi zen, hain zuzen Nafarroako Blancaren semea (Antso Jakitunaren beste alaba Champagneko kondearekin ezkondu baitzegoen). Teobaldo, Antso Azkarraren lehengusu propioa zen, eta nahiz hark, ordenuan, Aragoiko Jaime I utzi oinordeko gisa, infanzonek-eta Champagnera jo zuten, Blancaren semea hobetsiz. **Saiatu zen Gipuzkoa, Araba... bereskuratzen**, eta lortzear egon zen. Jarraian seme Teobaldo II.a, Karlos I., **Karlos**

II. (“le Mauvais/el malo”; 1349-1387)... Ingalaterrarekiko aliantzak, Frantzia eta Gaztelaren aitzi, gero alderantziz... Baina beti okupatutako **lurralde patrimonialak berreskuratu nahian.**]

Bestalde, Nafar Erresumaren izaeraren berri ematen digute zenbait osagaik: erregeek, indarrean eta onartua izan zitezen, “juramento del fuero” (herri-mailako lege eta usadioak) onartu eta bete beharra zeukaten. Hori, besteak beste, **Infanzonen Junta** deitutako baltsak gauzarazten zuen. Infanzonena indarrean izan zen XII. mendetik XVI. menderarte. Bertan biltzen ziren laborari libreak, kapare eta zaldunak, apezak... Haien helburu nagusia ohitura eta usadioak begiratzea eta babestea zen, erregeen boterekeriaren aitzi; orobat justiziaren alde jardutea. Ez zen ofiziala, bai, ordea, onartua, “social instituyente” deitzen denaren funtsezko adierazpide osagarri gisa. Obanos-en bildu ohi ziren, baina Erresumako eskualde guztietatik etorrira. Ordezkarriak herri-partaideen artean hautatzen zituzten, beregain, garaian aski ez-ohikoa zen maneran. Haien lemak, bai artean, bai orain, ongi laburbiltzen du euskal herriaren -subjektu politikoaren- askatasunaren aldeko lehia eta estrategia maila: **Pro libertate Patria, gens libera state**. Aberria libre izan dadin, herritarrak aske, alegia. Armarrian, horrekin batera ezarria zuten *Infanzonum Navarra Juntarem* lema.

[Infanzoneen kultura eta tradizioa Nafar Erresuma osoan zabaldu zegoen. Oraindik ere, Baigorriko Hiriberria etxean (XVI-XVII) atari gaineko harrian eder zizelkaturik ikus daiteke: **Infançon sortu nis, infançon hilen nis**, azpimarratuz etxea dela libre sortu zena, ez sehi edo morroi. Eta ez da bakarra. Armarrria zeukaten guztiak, handi zein xume, etxe libreak ziren, hots jendeak. Holako osagai eta jarduerak aski ez-ohikoak ziren Europako garaiko testuinguruan. Euskal herriaren gizarte kontzeptio(horizontalago)-aren berri ematen dute, Nafar Erresuman ere -botere egitura gorena- txertatua.]

**1512-1522:** Nafarroa Garaiko konkista, berreskuratzeko ahaleginak, Noain, Amaiur, Hondarribia... Pedro de Navarra y Lacarra, *Mariscal de Navarra* (1516-an Erronkarin harrapatua Erresuma berreskuratzeko lehian, 1523 hila Simancas-en atxilotuta; bere semea Hondarribiko setioan 1522an), Jaso Azpilkueta (Xabier, familia eta gaztelua hondatuak, anaia Amaiurren, ez zen itzuli okupatutako lurrera eta Portugalera doa: bere osaba Martin Azpilkueta, *Doctor Navarro*, ospeko irakaslea zen Coimbran), eta Martzilla-ko Ana de Velasco. Bitartean, Loiolako Iñigo espainiar armadarekin Iruñean, Beaumont, noski... (Bibliografia ugaria da, berri eta zehatzenetarikoa Peio Monteano-ren *La guerra de Navarra (1512-1529), crónica de la conquista española.*) Bestalde, interesgarria da herri kulturaren gerlek eta konkistak duten oihartzuna; ikuspegia osatzeko arras baliagarriak dira. Garai hartakoen artean, adibidez, *Bereterretxen kantorea*, non eta Zuberoan.

**XVI. mendea:** Nafarroa Garaia okupatu-bahitua izan ondoren, ifarraldeko lurraldeetan kokatu zen Korteia. Bertan, **Margarita Nafarroakoa** eta haren alaba **Joana Albretekoa** azpimarragarriak dira. Haien eskutik etorri zen **Erreforma**, kultur garapena, itunak (François I, ingelesak)... Joanaren semea, Henry III Nafarroakoa Henri IV Roi de France et de Navarre bilakatu zen. Erresuma mendratuan -Nafarroa Garaia galdurik- ernazimenduko eta Europako ifarraldeko herrien ildoetan kokatu zen nafar kortea. Gizartea modernizatze aldera soziologikoki, filosofia eta erlijioan, hezkuntza eta hizkuntzan...

[**Bernat Etxepare apez** katolikoa zenez, ez zegoen nafar kortearen alde, bai, ordea, hala ere, ernazimenduko ildoetan. Hortik haren aldarri berria (1545): Euskara kanpora, hizkuntza plazara, goazen oro dantzara... Argien aroan garaikide, beraz. Areago, menturaz, **Joanes Leizarraga**, Luteroren garai berean (latinetik -> alemanierara), hemen euskarara itzuli zuen Testamentu Berria (1571), Joana Albretekoaren aginduz. Garaiko ardatz-erreferente nagusia -Biblia- herritarren esku jartzea urrats demokratizatzailea zen, are iraultzailea, “Jainkoaren

hitza” anartean bakarren batzuren latinezko gotor-lekua baitzen, horrek zekarren boterearekin. Teologia-auziez haratago, gizartea modernizatzearen aldeko desmartxa zen, sekulako ondorioak ekarri zituen, mundu mailan. Nafar kortea dinamika horretan txertatzen saiatu zen, ez soilik Testamentu Berria itzularaziz (okzitanieraren gaskoinera aldaerarekin gauza bera egin zuen, Bearnoko Arnaud de Salette izan zen itzultzailea), hezkuntza ere modernizatze ahalegina zegoen, Unibertsitatea Ortezen... Lehenengo aldiz kortea - erakunde gorena, estatua- eta eliza euskara eta kulturaren alde, eta garaikide desmartxan.

Digresioa: horrekin nabarmentzen dira, agian, euskal herriaren ordenamendurako jitea eta egoera berriari egokitzeko gaitasuna, “ifartarra” nolabai esateko. Horrekin batera, latente baina beti bizirik dagoen eta eraginkor diren kaosarekiko harremana eta zentzua, gizarte osasuntsuago, horizontalago eta parte hartzaileagoren fagoretan. Horren isladarik behinena **jaian** nabarmentzen da. Esan liteke euskal herria bi buruen arteko oreka horretan kokatzen dela... Baina hori beste atal batean garatzeko gaia da.]

Nafarroa Garaia, Gaztelako koruari atxikia bazen ere, **Erresuma statusa eusteari** zerraion (kortea, zergak, aduanak, armada...). Gainerako Erresuma, erabat beregain. Nahiz Luis II Nafarroakoa/XIII Frantziakoak, nafar eta bernes deputatuen protesta bizien artean, **Édit de l'Union** (Pau, 1620) bortxara ezarri indarrean (...*unit et incorporé à la Couronne de France. Le Royaume et País de Navarre pour être dorénavant censé membre d'icelle et de même nature, qualité et condition que les autres membres du royaume, couronne et domaine de France*). *Mais il déclara que c'était sans déroger ceux fors, franchises, libertés, privilèges et droits appartenant aux sujets du dit Royaume de Navarre, "que nous voulons leur être inviolablement gardés et entretenus"*). Nafarroa Garaia antzeko loturan gelditu zen, funtsean Erresuma beregaina izaten.

Dena den, oinarriak gero eta prestatuagoak inperioek gazta beren interes-indarren arabera zatitu ahal izan zezaten. Handik gutira, 1659-XI-17-an, Louis XIV eta Felipe IV erregeen ordezkariak (Cardinal Mazarin eta Luis de Haro) **Tratado de los Pirineos/Traité des Pyrénées** sinatu zuten Pausun dagoen Konpantzia Uhartean (Isla de los Faisanes/L'île des Faisans), bat ziren herrialde eta lurraldeak zatituz eta bereganatuz, mugak ezarriz... EH zatitua, Catalunya berdin (Roselló frantziar koroaren menpe). Itunaren 42. artikulua zioen: *Les monts Pyrénées qui avaient anciennement divisé les Gaules des Espagnes seront aussi dorénavant la division des deux mêmes royaumes.*

[Erakundeen aldetik urrats horiek eginik, beste mailatan ere, aldiz emeki, aldiz tanpez, higadura aurrera zihoan, eraso ondorioz, bai jada ‘espainiar’ zen nazionalismotik, bai frantziarretik (arrotz ziren interesetan gero eta gehiago inplikatu beharrez EH, jendartearen trinkotasun eta izaera hautsi nahian...). Testuinguru horretan kokatu behar da **“sorginen ehiza”**, XVI-XVII. mendeetan, nahiz “heresiak” XV. mendean jada hasi izan (Durango aldeko mugimendu eta errepresioak). Ia bi mende izupeko egoera, beraz. Inkisizio espainiarren bitartez, armada lagun, EHren kristautze-bezatze prozesua areagotu zen... izu-laborrian. Ondorioz, bortizki ordezkatzeko kinkan gertatu ziren sineste zaharrak, gizarte-antolaketa horizontala(goa), emakumeek zeukaten munta, funtsezkoa sozietatearen trinkotasunean: etxe-transmisioan, sakratu arloan, jaian, herri-biltzarretan... Hots, jendarte mailako kohesio eta osasuna, herriaren askatasuna. Inkisizio espainiarra, 1478-1834, Gaztelako erreinuan hasi zen, jarraian Aragoikoan -Fernando ‘katolikoa’ tarteko, hain zuzen-; Nafarroakoan 1512-22tik aurrera, nahiz Calahorra eta Logroñotik jardun izan. Espainiar erregegoaren meneko erakunde izugarria, armadarekin batera eta Erromako Elizarekiko sintonian, txertaturik dago espainiar nazio eta nazionalismoaren izaera eta bilakaera. Frantziar Koroaren lurraldeetan Inkisizioa indarrean egon zen XIII eta XIV mendeetan, Okzitaniako errebeldeak ziren kataroen aurka jardun zuen nagusiki, izan ere frantziar nazionalismoa konkistatzen ari zen herrialde-lurralde zabala (harentzat hegoaldea bere “mendebaldea” izan zen). Dena den, Inkisizioaren eragin eta ondorioek mendetan iraun zuten indarrean.

Kristautzeari dagokionez, ez da kasualitatea, noski, euskarara itzulitako dotrina eta katiximak hain ugariak izatea garai hartatik aurrera, ia XX. menderate. Ondorioz Euskaldun-

fededun axioma sakon barneratuko zuen Euskaldungoak..., politikan ere nabarmenduko dena: Jaungoikoa eta Lagi- zarra.

Sorginen auziak, beraz, osagai berezia zeukan EHn: Nafarroako Erresuma(konkistatu berria)ren luze-zabalean, euskal gizartea ahultzeko, menderatzeko eta arrakalatzeko helburua... 'bidenabar'. Horren denaren adierazpen argigarria, besteak beste, **Pierre Lancre** inkisidorea da: hizkuntza deabruzkoa, emakumeak bekatuaren egoitza, eta gainera sakratuarekiko loturan, Elizan!]

Ondoko urteetan, injerentziak, erasoak... ez ziren falta izan. Haatik, defentsak eta askatasunaren aldeko aldarrikapenak erez.

[Bernard Goihenetxe *Matalas*, esaterako. Frantziako erregegoak Zuberoako foru-eskubideak murrizteaz gain, lurrak jauntxoei emateko joera sustatu zuen. *Silbiet*, Zuberoako 3. estatuko biltzarrean ordezkariak egoera zuzentzeko egindako saioak huts eginik, laborariak altxamendura sustatu zituen Mitikileko erretore zen Matalas-ek, frantximent nobleen aurka, 1661eko ekainean. Nobleek armadaren laguntza eskatuz Bordelera, Sohütan gudukatu zuten, ia armarik gabeko laborariak zafratuz. Matalas-ek eta beste zenbaitek ihes egin zuten, baina buruzagitzat zeukatena, Matalas, harrapaturik, epaitu eta erail zuten urte bereko azaroan, Maulen. Burua moztu zioten eta denboraldi batez Mauleko sarreran zintzilikatu zuten, izua zabalduz lortuko zutelakoan jendea esaneko eta menpe egon zedin.

Etxahun-Irurik *Matalaz Pasturala* ondu zuen 1955ean, kantua ezaguna da (... *agian, egun batez, jeikiko dira egiazko Xiberutarrak, egiazko Eskualdunak tirano arrotzen ohiltzeko*). Agian...]

Urteen joan-jinean, defentsa eta aldarrikapenekin batera, askatasunaren (eta Nafar Erresumaren) jarraikortasunaren adierazpenak ere ez ziren falta. Adibidez, **Manuel Larramendi**-rena, 1735 inguruan. Garaiko kontraesanen dinamikan murgilduta ibiliagatik, euskal sena-kontzientzia ez zeukan baztertzekoa: *¿Qué razón hay para que la 'nación bascongada'... no sea nación aparte, nación de por sí, nación exenta e independiente de las demás?... ¿Por qué tres Provincias en España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla, Guipúzcoa, Alaba y Bizcaya, y otras tres dependientes de Francia, Labort, Zuberoa y Baja Navarra?... Solicitemos a unos y otros y nos llamaremos las "Provincias Unidas del Pirineo"... Una República toda de bascongados. Desecharemos la jurisprudencia, las costumbres y moda de España y de Francia. Etc. Larramendiren aldarrikapena eskualde bakoitzaren foruetan (lege eta askatasunetan) oinarritu zen. Abertzaletasun modernoaren aitzindari, konfederazio gisan, baina ancien régime-ko antolamendu juridikoan oinarritua (kanpoko erregego batekiko loturan baino ez zegoena, gainerakoan aske). Eta, gainera, Nafar Erresumaren gako politikoa behar adina aintzakotzat hartu gabe. Luze irauenen duen ikusmolde-praktika...*

**1789** (martxo-apirila), **Nafar-deputatuen** adierazpenak frantziar (nazionalismoaren) iraultza garaiko Versailleseko *États Généraux* biltzarrean (probintzia bailitzan deitua izan zelako): *"La Navarre n'est pas une province du royaume de France, mais un royaume distinct... La convocation est irrégulière, illégale et anticonstitutionnelle"*.

Abuztuko biltzarrean Polverel jauna, Nafar Erresumaren abokatuaren erantzun- aldarria: *"...je ne pense que les Etats Généraux de France puisse pas exiger de nous (Navarre) le sacrifice"*

*de notre constitution, des droits précieux que nous sommes réservés en nous donnant un souverain et auxquels nous n'avons jamais renoncé ni expressément ni tacitement, puisque n'ayant point été unis à la France, nous n'avons jamais cessé d'être un pays distinct et indépendant"... "Je le dis à regret, mais ne reste plus à la Navarre qu'un parti à prendre, c'est de se déclarer république indépendante et de se gouverner par elle-même"... "Ceux qui doutent que la Navarre put conserver son indépendance ne connaissent ni ses montagnes, ni l'intrépidité des Basques, ni leur amour pour la liberté".*

[Hurrengo biltzarreko agirian: "La Navarre est le seul des pays soumis à la domination des rois de France dont les députés ne sont pas présentés à l'Assemblée Nationale". Bearnoko deputatuak ere ez ziren joan, bat eginez nafarrekin. Baina...]

**1790 (15 Janvier)**, indarraren "arrazoiz", bortxara, beraz: *L'Assemblée dans une précédente séance a décidé que le pays de Basques, le Béarn et la Navarre formeront un département...* Garat anaiak, nahiz euskal 'kostumak' preziatu, garaiko "frantziar errepublikanismoaren" uholde eta liluran, (ia) beregain ziren Nafar Erresuma eta Lapurdiko Biltzar eta Zuberoko Silbiet mantentzearen kontra bozkatu zuten...

1790tik aurrera, errepresioa, espetxeratzeak, deportazioak... Itsasuko 43 gaztek desertatu zuten 1794ean, "Terreur" aroan. Orduan *Le Comité de Salut Public* delakoak **Sara, Azkaine eta Itsasu "Communes infâmes" izendatuak izan ziren**, eta bertako **gizon, emakume, zahar eta haur asko deportatu zituen**. Ainhoa, Ezpeleta, Zuraide, Biriatu, Kanbo, Larresoro, Luhoso, Mendionde eta Makeako herriak ere kontrolpean zeuden. 8 hilabete atxiki zituzten deportazio latzean, urrun: Landak, Lot, Lot-et-Garonne, Gers, Hautes Pyrenées... Hildakoak 1.600 baino gehiago, umiliazio eta egoera lazarriak, eta urrun zeuden bitartean etxeetan eta ondasunetan lapurketa eta desmasiak.

**1793-1795, Guerre de la Convention:** Gipuzkoak aski segidan ontzat jo zuen Frantziar Erresumaren baitara pasatzea, baina independentziari atxikiz -Getariako Juntak-. Moncey ordezkariak aurrera jo nahi zuen, baina Pinet eta Cavaignac buruzagi jakobinoek - deportazio, errepresio eta antzekoetan nabarmendu zirenak- ez zuten ontzat hartu: edo erabat Frantziar sartzan ziren edo deus ez. Beraz, ekimena bertan behera gelditu zen hondarrean. Ez alferrik. Handik gutxira **Dominique Garat**-ek, ikusiz **Napoleon** buruzagi nagusia bilakatzen ari zela ("Consulat" aroan) eta Espainiaren ahalmena gutxitzeko egokia zatekeelakoan, hots, enperadorearen indar erlazioaren fagoretan (Jose Bonaparte Madrilen zen jada), "**État National Basque**" baten sorrera proposatu zion Napoleoni. "Nueva Fenicia" deituko zen (*Hay fuertes razones para pensar que el escudo de Fenicia, de las banderas de sus barcos, ha pasado a nosotros a través de los siglos, que todavía se encuentra en el escudo de armas de Navarra*). Larramendiren oihartzunean, hain segur -erabili beharreko testuen artean andoaindarra aipatzen baitzuen-, baina ñabardura da Garaten proiektuak Estatu egitura zentralizatua zeukala, "de planta nueva"... Ohartu gabe, berriz (Larramendi bezala) Nafarroako Erresuma zen oinarri politikoaz. Napoleonek onartzeaz zegoen, baina azkenean erreka jo zuen, besteak beste, lekuak hustu behar izan zituelako, Wellington eta aliatuen kontra gerla galduz. Horrek, bestalde, espainiarren aldetiko mendekua ahalbideratu zuen (Donostian bereziki), hilketak, sute eta txikizioak, lapurketak eraginez. Oro har, Napoleonen aurkako gerlak hegoaldean espainiar nazionalismoa elikatu zuen.



[1810-02-08an Napoleonek *Décret impérial* baten bitartez, Jose anaiaren dominioetik bereizi zituen Bizkaia, Nafarroa, Aragoi eta Catalunya, bakoitzean gobernu bat antolatuz zuzeneko loturan Parisekin, eta Espainiarekiko harreman guztiak etenik utzita. ‘Administrazio transitorioak’ izan ziren, nahiz Catalunya anexionatu 1812an. Gerla galdutakoan dena atzera itzuli zen.

Garai berean, Europa EH “deskubritzen” hasi zen. Erromantizismoaren eragina. Lehenengoetik **Wilhelm von Humboldt** izan zen: lehen bidaian (1799), liluraturik gelditu zenez, gramatika erosi eta euskaraz ikasi zuen ulertzeko heinean, bederen. 1801 itzuli zen. Besteak beste, honela dio: *Se ve verdaderamente una nación en que la fuerza, el movimiento, hasta la forma general del carácter viene de la masa y no es sino cultivado y refinado por los individuos a quienes su situación personal ha puesto en estado de hacer más rápidos progresos. En casi todos los otros países el pueblo no es sino una masa inerte. Ese es, sobre todo, el caso de Francia y si la nación francesa ha carecido siempre de espíritu público, si en ese país se han visto reinar sucesivamente una espantosa superstición o un libertinaje de espíritu igualmente pernicioso para las costumbres, si hasta la más alta poesía francesa carece a menudo de vigor y de lo natural, me parece que todo ello se debe a que no domina en Francia el genio ni el espíritu de la masa nacional, son más bien las opiniones de algunas clases que, al dar el tono, no excitan sino débiles imitaciones de los demás... Jamás he cesado de ocuparme de Vasconia durante las cuatro semanas que estoy acá de regreso. He estudiado mucho la lengua, he copiado un diccionario manuscrito vasco (Silvain Pouvreau) que he encontrado en la Bibliothèque Nationale.* Etc. Goetheri ere helarazi zion bere entusiasmo, Wagner bera jakitun zen. EH ezagutzeko irrikari bidea zabaldu zion Europan. Gero beste asko etorriko dira. **Victor Hugo** bat, adibidez, 1843an. Honela dio: *Un lien secret et profond et que rien n’a pas pu rompre, unir, même en dépit des traités, des frontières diplomatiques, même en dépit des Pyrénées, les frontières naturelles, tous les membres de la mystérieuse famille basque. On naît basque, on parle basque, on vit basque et l’on meurt basque”... “La langue basque est une patrie, j’ai presque dit une religion... la langue espagnole est ici une langue étrangère comme la langue française.]*

**1833-39:** 1. go Karlistada. Zumalakarregi, Lizarra hiriburua, testigantzak (herrikoiak, historia), Muñagorri (1794-1841) (“**Pakea eta Foruak**”: **...Ar itzazute armak! Gora gure azkatasuna! Pakea ta libertadia!**”, 1838-04-19)... Bergarako “Bakea”, oroitarazi 1. go artikulua (*Se confirman los fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la Monarquía.*) Etc.

1839-10-25ean Bergarako lege bilakatu zen. Jarraian “arreglo foral” garaia hasi zen. Nafarroari dagokionez “Diputación del Reino” izatetik, probintzia “forala” izatera pasarazi zuten. Diputazioa nafar liberelez osatu zuten, “negociar la adhesión al Estado” helburuarekin. Ondorioa “Ley Paccionada” deitutakoa izan zen, 1841-08-16ean. Aldebikotasunaren itxura ematearren “paccionada”, garaile eta garaituaren arteko legea baizik ez zenean, garailearen alde, noski. Yanguas y Miranda, Diputazioko idazkaria, nabarmendu zen zeregin hartan.

**XIX. mendean zehar**, 1. go karlistadaren ondoren, hegoaldeko lauen arteko lotura handia zen, sukarra ere bai, frustrazioa handia baitzen. Testuinguru horretan sortu eta garatu ziren gaur arte dirauen imaginarioaren hainbat eragile eta arlo: Chaho mitogile eta politikoa,

Iparragirre (**Gernikako Arbola**, laster EH osoan nazio-ereserkitzat hartua), herri- kultur ondarea (biltzen, ikertzen...), antropologia, historia, bestelako ikasketak... Beti da aberasgarria, dimentsio osatuagoa ematen laguntzen dutelako, herri mailako sorkuntzetara jotzea: bertsoak, kantuak, jotak, errelatoak, artea... Ugariak dira XIX. mendeko testigantzak, herritarren ikuspegiak gain, herriaren sakoneko auziaren berri ere ematen dutenak.

Giro hartan, 1868n, adibidez, Iturralde y Suit idazle eta historialariak euskal kultur elkarte bat sortu nahi izan zuten Nafarroan, Pablo Ilarregui, Nicasio Landa, Esteban Obanos eta beste zenbaitekin batera. Deia Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko kultur gileei luzatu zieten. Asmoan gelditu zen, baina laster, 1877an “**Asociación Euskara de Navarra**” elkarte bat sortu zuen Arturo Campionekin batera, honek Madrileko “La Paz” aldizkarian holako elkarte baten beharra aipatuz artikulua idatzi ondoren. Azken karlistada amaitu-eta jarraian sortutako lehen Elkarte bat izan zen. Hor bildu ziren, **Iturralde eta Campion**-ez gain, **Hermilio de Oloriz, Serafin Olave, Florencio Ansoleaga, Julio Altadill eta Estanislao Aranzadi**... Horrela zioen oinarrizko agirian: “*Navarra y sus hermanas Guipuzcoa, Vizcaya y Álava no forman en realidad más que un solo pueblo, unas mismas costumbres, una autonomía común de siglos, una misma lengua, verdadera y tal vez único signo de las nacionalidades básicas, un mismo espíritu de libertad inextinguible*”. Helburua “recuperación foral”-a zen. **Hegoaldera mugatua**, beraz, eta, gainera, Espainiaren lotura “askean” oinarritua. Hala ere, lehenak izan ziren *Zazpiak Bat* aldarrikatzen. Iturralde y Suitek Lore-Jokoetan sarituentzako domina berezia sortu zuen. Elkartearen armari gisakoa. Aurkian, inguruan, *Nafarroko Euskarazko Elkargoa eta Jaungoikoa eta Fueroak* inskripzioa; erdigunean, Gernikako arbola, gurutzea gainaldean, enborrean Nafarroako armaria, atzean zazpi mendi, alde batean hiru, lau bestean. Ifrentzuan, inguruan *Asociación Euskara de Navarra*, erdigunean, sarituaren izena eta data. EH eta bere Erresuma irudikatuak, alegia. Elkartek 1897 arte iraun zuten, baina hazia utzi zuten. Batetik nafartarren euskal kontzientzia elikatuz eta nafar historiaren munta –Euskaldunen Erresuma izanarena– nafartarren subkontzientean txertatuz. Bestetik, hizkuntza eta kulturaren aldeko Elkartek sortzeko bidea zabalduz.

[Adibide bitxi eta interesgarria da ‘euskaroen’ elkartekide zen Serafin Olave. Militarra, espainiar armadarekin Filipinas, Cuba... eta Lizarran karlistadan, espainiar armadarekin sartuz. Pi y Margall-en Partido Republicano Democrático Federal-ean murgilduta ibili zen, are lehendakari izateraino. Nafarroa Espainiar errepublika federalaren Estatu bat izatea planteatu zuen (Diputazioaren babespean). 1883 batzar bat antolatu zuen Tuteran eta bertan onartu zuen “**Constitución futura de Navarra o Bases redactadas según el espíritu de los antiguos fueros, acomodados a las formas modernas... Una Constitución nacional basada en el derecho de autonomía completa regional española, que arranque legal y legítimamente del Pacto establecido al incorporarse a Castilla, quedando Navarra Estado de por sí, pacto que en nada ha perdido su validez legal por las violaciones del mismo, consumadas en virtud de fuerza mayor... Se constituirá en Región, pero está dispuesta a admitir la libre reincorporación de los territorios de Rioja, Vascongadas y sexta Merindad de Ultrapuertos, que antes fueron navarros, contando ya que, en algunos de ellos, existe la patriótica tendencia a tan fraternal y conveniente unión.... Se conceden los derechos de ciudadano navarro a los riojanos, vascongados y franceses de la sexta merindad de Ultrapuertos que la soliciten**”.

XIX. mendean barna, bidaiari gehiago etorri ziren, kualifikatuak: **Louis Lucien Bonaparte**, jatorri euskalduna zeukan **Antoine d’Abbadie**, Webster eta beste hainbat. Bertakoen eta haien eraginez sortu eta garatu ziren nazio mailako hainbat ekimen: **Lore-jokoak, Zazpiak bat, hizkuntza- mapak, Literatur garapena**... orobat **politikan**.

Lehenagotik ere zazpi eskualdeak aipatuak izanik ere -Axular, Larramendi, Garat, Abadia eta Chaho (Zazpi Uskal-herrietako Uskalduner), Asociación Euskara de Navarra, Zaldubi...-, **Zazpiak Bat** lema gisa formulatua eta inprimatua Jean Jaurgainek erabili zuen lehen aldikotz 1897an

Donibane Lohizuneko Lore-Jokoetako afixean (Congrès et Fêtes de la Tradition Basque), bertan zazpi eskualdeetako irudiak eta lema erabiliz. Laster zabaldu zen EH osoan barna.]

Hegoaldeko lauak elkarrekin ibili ziren aldarrikapen eta dinamikan. Kultura aldetik, politika aldetik... Karlistadetako galerak min-frustrazio bateratzaile ziren, eraginkor. Egoera gorian edozein erasok sua du pizten. Hori gertatu zen **Gamazada**-rekin. 1893ko maiatzak 11.n lege proiektuaren berri eman zuten espainiar buletinean. Helburua, nafar autonomia fiskala ezabatzea. Inarrosaldia eragin zuen Nafarroan (Diputazioa buru), baita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ere. Manifestazioak toki guztietan. Gasteizen liskarrak, euskal kontzientziaren gorakada, Orfeón Pamplonés Bilbo eta Gernikara kantatzera gonbidatua... Gernikan espainiar ikurra erre zen (“sanrocada”). Laguardian borrokak, hildako bat eta zaurituak. Donostian jendea kalean jazarria Hotel de Londresen sartu beharrez, bertan Sagasta espainiar ministroa baitzegoen. ‘Guardia zibila’ kargan, 3 hildako eta zauritu frango. Kostaldeko herrietan liskarrak. Langileen manifestazioa Bilbon, itsasontzigintzan (Espainiatikako lan-eskaerak Ferrol-era eramane zituztelako). “Bascongadetako” kontzertua ekonomikoa berritzeko garaia zen, gainera... Hegoaldeko euskalduntasuna sukartua zen, karrika gori-gori zegoen, Espainiako Gobernuaren aurka.

Azkenean nafar deputatuak Madrilera deituak izan ziren, ea legea onartzera behartzen zituzten. Baina deputatuak fermu, ez zuten amor eman eta lege-proiektua bertan behera gelditu zen. Trenean itzuli ziren eta **Castejon**-en jendeketa gaitza zeukaten zain, goraka eta bibaka. Gernikako Arbola ere kantatu zen. **Arana Goiri anaiak** han ziren, proto-ikurriña batekin eta nafar sukarra ikusiz zeharo hunkituak. Iruñerainoko bidaia sukar batean pasatu zen. Diputazioan bilera egin zen eta Arana gonbidatu zuten. Honela mintzatu zen: *En nombre de los vizcainos aquí presentes y aún pudiera decir de todos los vizcainos, porque todos están con Navarra, y en nombre también del periódico ‘Bizkaitarra’, del cual soy el director, saludo respetuosamente y felicito con entusiasmo a la Diputación Foral de Navarra, por su patriótica actitud y heroica campaña enfrente de los injustos planes del Gobierno español, y le ruego dé de nuestra parte, un fuerte abrazo al pueblo navarro, al pueblo patriota, al pueblo hermano del nuestro, al pueblo muy querido de nuestro corazón. ¡Viva Navarra!, ¡Viva Euskeria unida!*

Urte berean, 1894ean, Diputazioak erabaki zuen **Foruen aldeko monumentu** bat eraikitzea. **1903**-an amaitu zen, herritarren diru-laguntzaz. Iruñeko Paseo Sarasaten dagoena da, beti ere zutik. Campion eta *euskaro* ohiak dinamikaren erdigunean zeuden. Borondate eta deliberamenduaren lekuko, 5 plaka ezarri ziren honoko inskripzioekin:

- SE ERIGIÓ ESTE MONUMENTO PARA SIMBOLIZAR LA UNIÓN DE LOS NAVARROS EN LA **DEFENSA DE SUS LIBERTADES, LIBERTADES MÁS DIGNAS DE AMOR QUE LA PROPIA VIDA.**

- LA INCORPORACIÓN DE NAVARRA A LA CORONA DE CASTILLA FUE POR VÍA DE UNIÓN PRINCIPAL, **RETENIENDO CADA REINO SU NATURALEZA ANTIGUA, ASÍ EN LEYES COMO EN TERRITORIO Y GOBIERNO.**

- JURABAN NUESTROS REYES GUARDAR Y HACER GUARDAR LOS FUEROS, SIN QUEBRANTAMIENTO ALGUNO, MEJORÁNDOLOS SIEMPRE Y

NUNCA EMPEORÁNDOLOS, Y QUE **TODA TRANSGRESIÓN A ESTE JURAMENTO SERÍA NULA, DE NINGUNA EFICACIA Y VALOR.**

- GU **GAURKO EUSKALDUNOK** GURE AITASOEN ILLEZKORREN OROIPENEAN, BILDU GERA EMEN GURE LEGEA **GORDE NAI DEGULA ERAKUSTEKO.**

- GU EUSKALDUNOK BESTE JAUN EZTEGU JAUNGOIKOA BAIZIK, ATZEKOARI OSTATUA EMATEN DEGU ONIRIZKEN, **BAINA EZTEGU NAI AIEN UZTARRIA JAZAN. ADITU EZAZUE ONDO, GURE SEMEAK!** (Euskaraz, baina iberiko karakterez idatzia).

**Nafar Erresumaren jarraikortasunaren baitezpadako lekukotasuna, harrian idatzia, publikoa, sozialki erabat plebisztatua, XX. menderaen hasieran erakunde goren bakartzat aitortua, eta iraunarazteko borondatea aldarrikatuz. Eta horri lotua Euskaldunen (nafarrak barne) -subjektu politikoaren- erabateko askatasun-aldarri berretsia, hurrengo belaunaldiei ere helaraziz gaztigua.**

[Monumentuaren gailurrean emakume baten irudia eman zuten, “matrona foral” gisan. Agian, gizartetik ezabatu eta hildako hainbat ‘sorginen mendekua’... Modeloa, Rosa Oteiza irun-alaba izan zen.]

Nafar historiaren munta politikoa, berpiztua, abertzaletasun berria sortzen ari zen garaian. Osagai guztiak zeuden, baina, zoritxarrez, ez oraindik behar bezainbat uztartuak ideario eta praktikan.

**Arana Goiri:** “Bizkaia por su independencia” oinarritik abiatu bazen ere -aldarri eta ekimen politiko irekia, beti ere, beste euskal lurraldeak txertatzeko modukoa-, laster pasa zen hegoaldeko lauak, eta jarraian, zazpiak baturik aldarrikatzera. Gamazadan bizitutakoa baitezpadakoa izan zen. Laster etorri zen jauzi kualitatiboa (1894): “**Euzkadi es la patria de los Vascos**”, 824. urtean nabarmendu zen **subjektu politiko beraren aldarrikapen funtsezkoa**, gaurkotasunez hornitua. Ez gehiago, beraz, koru arrotzekiko paktu eta itunik, ez foruetan oinarritutakorik: *Bizkaia Espainia ez den nazioa da, Araba, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Garaia eta Beherea) eta Zuberoa bezala. Euskeria* deitu ohi zuen hasieran, jarraian **Euzkadi** (herri osoan onartua zen ‘Euskalherria’ baztertuz, karlismoak erabiltzen zuelako bakarrik). Karlismoarengandiko Aranaren bereixte hori, nahiz garaiari eta ideologiari zegokienez haren adierazpide eraldatua izan, eragin handikoa izan zen mendebalde eta ekialdearen arteko urruntze eta dibortzioan, Nafar Erresumaren tradizioaren -hein batean, karlismoan zetzana, nahiz gai ez izan gaurkotcheko- eta bere egiten jakin izan ez zuen abertzaletasun berriaren artean.

Aranaren idearioan, eskualdeak konfederatuko ziren, bakoitzaren berezko autonomia murriztu gabe. Berriz ere, erro zaharrak zituen, eta dituen, eskualdeak, bereziki Bizkaia, hasieratik beregain izanaren ideia, mendez mende historialariek errepikatu dutena, Nafarroako Erresumarekiko loturarik ez bailuten. Konfederazioa, beraz, beti azaltzen da, *ancien régime*-ko tradizio deszentralizatua, baina Nafarroako Erresumaren kapital politikoarekin txertatu gabe (bidenabar, hasieratik deszentralizatua, federala, hain zuzen), ez

eta haren oinordeko mendratuarekin ere. Iruñeko monumentuan garbi adierazi izan arren, praktikan herren. Ondoko pedagogia eta praktika politikoa ere nagusi ziren ideia eta joeren arabarekoa izan ziren.

[Hizkuntzaren eta kulturaren kezka, hala ere, beti bizirik. “Asociación Eúskara de Navarra” elkartearen ildotik loratu ziren zenbait Elkarte: **Eskualtzaleen Biltzarra** (1901, Hondarribian, Hendaian...), EH osoko kulturagile gehienak bildu ziren eta segidan hasi zen biltzarrak egiten, hizkuntzaren batasunaz, hezkuntzaz, etab. Geroxeago **Eusko Ikaskuntza**, 1918n Oñatin eta haren kumea izanen zen **Euskaltzaindia**. Gehienetan, politikagintzan zebiltzan alderdiak baino aurreratuago (EH osoa, herrigintza garatuz kualitatiboki, unibertsitate proiektua...).

Tartean, 1914-18 **I. Mundu Gerla**. Frantziaren aldeko odol-huste izugarria, aztarna eta oihartzun sakonak utzi zituen iparraldeko gizarte fisiko eta mentalki ahulduagoan, higuatagoan; hezkuntza kontrolatuagoa, eliza frantsesten... (Ikus: Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria, Eneko Bidegain.)]

Hegoaldean garatzen ari zen politikagintzan, hala ere, bazen osagairik oinarriak estrategi-mailakoak izan zitezten. XX. mendeko lehenengo hamarkadetan EAJ-ren hasierako batasuna arrakalatzeko hasi zen; ezkertiarago diren joerak, autonomistagoak (Comunión Nacionalista), independentistagoak (Aberri). Banandu, batu... Horren aurrean, 1930.n **Acción Nacionalista Vasca (ANV)** alderdia fundatu zuten artekoarekin ados ez zeuden zenbait pertsona esanguratsuk. Haien artean **Anacleto Ortueta** bilbotarra. Laster historiagintzan murgilduko zen, batez ere Nafarroako historian. Bera izan zen erabateko moduan Nafarroaren Erresumaren garrantzia ez ezik, zentralitate politikoa aldarrikatu eta sozializatu zuena. “**Nabarra y la unidad política vasca**” (1931) liburua kaleratu zuen. Bertan Nafarroa “**el Estado de Vasconia**” dela aldarrikatu zuen. Horretarako Araba, Bizkaia, Gipuzkoa estatu independenteak izanaren ideia kritikatu eta desmuntatu zuen (Garibay, Larramendi, Labayru, Novia Salcedo, Arana Goiri bera...). Funtsezko ekarpena zen, bere denbora behar zuena hausnartzeko, liseritzeko, euskal politikagintzan lurra hartuko bazuen, aldaketa kualitatiboa baitzen. Baina, denbora berean, euskal alderdiak, eta gizartea, hegoaldeko “estatuto de autonomía”-ren aldeko dinamikan murgilduta zeuden, buru-belarri; kanpaina luze, zailtasunez bete... Karlismoa XIX mendeko EHren alde jorratu bidetik gero eta urrunduagoa zen; ondorioz, abertzaletasunaren gorakadaren aurrean, foruen alde aldarrian, baina nagusitutako statu-quoaren alde gero eta lerratuago ibilki, gero eta errekuatuago, dibortzioa ekidinezina zen. Hortik, besteak beste, Lizarrako biltzarreko porrota eta karlismoa espainiar faxismoan txertatuta bukatu izana 1936-39ko gerlan. Hain zuzen, liseriketa prozesua oztotatzeko estatutoaren desmuntxa gutxi izan bazen, 1936ko gerlak izoztu egin zuen dena, irauaraziz, bidenabar, euskal jardun politikoa obsoletoa 40 urtez (eta beste 40, haren kume eta jarraipena den gure egunetako egoeran).

[Politika-fikzioa eginez (baina posible ziren osagaiekin): irudika dezagun estatutoaren dinamikan Nafarroaren Erresumarena (Ortueta-idea) ardatz gisa ezartzen zela, erdigunean... Uste izatekoa da, oso bestelakoa zatekeela jarraian garatuko zen politika. Lauak batuak izateaz gain (Vasco-Navarro, Vasconia edota bestela deituagatik), Erresumaren kapital politikoa berreskuratu izanarekin, estrategia-maila horrek ekar zezakeena oso bestelakoa izan zitekeen (eta hori, duela ia mende bat!). Politika-fikzioa?... Zoritxarrez, bai.]

**1936-39 Faxismoaren gerla.** Nahiz Bizkaian bakarrik eta denbora laburrez izan, Jose Antonio Agirre lehendakariak Euzkadiko Gobernua (agintea, armada, moneta...) ia Estatu gisan kudeatu zuen. Bonbardaketak: **Durango, Gernika...** Areilza-ren diskurtsoa Bilbon sartu zirenean: *Bilbao es una ciudad redimida con sangre... Quede esto bien claro: Bilbao*

*conquistado por las armas... Ha triunfado la España una, grande y libre, es decir, la Falange tradicionalista... Se levantará el edificio del nuevo Estado, cimentado sobre la base de unidad interna.... La razón de la sangre derramada por Vizcaya es otra vez un trozo de España por pura y simple conquista militar.* Etc. (1937-07-08) Berriz ere, beraz, oroitarazi behar baitezpadako oinarri juridikoa, nazioarteko mailakoa: *ex injuria jus non oritur (el acto ilícito -conquista/injuria- no genera derecho)*.

[Hegoaldean hondamendia. Ihes egindako asko Iparraldera. Ibarregaray baxenabartarra, faxismoaren alde izaki (Eliza bezala, abertzaleak komunistekin elkartuta zeudelako), iparraldea askorentzat ez zen larrosa-bidea izan... Urteen poderioz, Agirre jabetu zen Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Erresuman zeukala aurrekaria eta espresio politikorik osotuen. Jesus Galindez-ek, haren idazkaria Estatu Batuetan, aditzera ematen du bilakaera horren berri.

Iparraldean, aurreko ildoari jarraiki, 1939-45 II. Mundu Gerla sastakaia bezalakoa izan zen: odol-hustea berriz, gero eta "Frantziaren" aldekoago -gerlek eta hildakoek nazionalismo menderatzailearekiko lotura dute areagotzen, sakon barnatzen-. Aurrerapen eta bitarteko teknikoekin okerrago oraindik. Gernika Batailoia Paris liberatzen aitzindarietarikoa izan zen. De Gaulleren "inoiz ez dugu ahaztuko" promesa... zuria.

1960tik aurrera Pizkunde politikoa, ekonomikoa, kulturala... Ideario eta planteamendutan kultur pizkundera ageriko politikaren aurretik zihoan; ez hori bakarrik, munduan libre eta sortzaile kokatzeko ulean imaginarioa sortu zen (Oteiza, Artea, Labeguerie, ED13 eta kantagintza, Argia eta herri-dantza, antzerkia, literatura, zinema...), sustraietan sakonduz, zabalduz ostertzeak. Herriaren askatasun- nahiaren isla ezinago egokia zen ber, EHren ondare bizi eta eraginkorra. Oraindik ere, baitezpadako erreferente izaten jarraitzen duen imaginarioa...]

Politikagintzan, hegoaldeko lauentzako "**autonomía inmediata**" aldarrikapena, indarren erlazioan oinarritua, faxismoa egozteko lehen urratsa zen, baina **Agirre hil ondoren utzikeria estrategikoa** nagusitzen da alderdian, espainiar nazionalismoaren "antifrankista" ideologia eta strategiaren itzaleko jarduera (**Munich** eta ondoko endekapen politikoa, otapurren taktika...). Ifrentzuan, ekintza-errepresioaren azpi-estrategia. Hots, dinamika politikoaren motorra, batean zein bestean erregimenarena beti, 'kontzesioak' eta 'errepresioa'. Intra-totalitarioa den transizioan, gerla aitzin metatutako euskal kapital politikoa **xahutua** izan zen, orobat 60etan garatu kultur-politikoa. Hauteskundera joaki, "transizioa" eta ondoko **egoera legitimatuz**, zerotik hasi beharra baino okerragoko egoeran utziz herria...

[Nafarroaren munta aldarrikatzen zen, baina nafar Estatuaren gakoa oraindik ez zen formulatzen modu erabatekoan. Garaiko lehenetsunak, eta aukera bakarrak, gerla aurreko egitura juridiko-politikoa berreskuratzean zeutzan, **estatutu "vasco-navarro"** moduko bat, baldintzarik gabe eta berehalakoan, edozein hauteskunde eta bozketa baino lehenagokoa. Nafar-ardi-larruz mozorrituriko espainiar nazionalistek (ia) asumituta zeukaten, orobat Espainiako buruzagitzak, horrelako zerbait espero zuten... Esan bezala, mailan ez zeuden bakarrak alderdi abertzale nagusituak ziren, nahiz hitzez ados zeudela adierazi... Garesti ordainduko zen, ordaintzen ari gara. Jakina da, ahazten direnean egindako urratsak eta lortutako mailak, behin eta berriz zerotik hasi beharra dago, dena (erroreak barne) errepikatuz... ad infinitum.

2017 **Euskal Elkargoa** Iparraldean, askorentzat (gehienentzat?) helburutzat hartua eta ez baldintzatutako bitarteko egoeratzat. Hegoaldean, 'neo-foralismoa' berriz oholztan -bide horretatik independentzia lortu daitekeelakoan-. Ifrentzuan, jazarritz, baina parte hartuz legalitatean "orain baldintzak ba-direlako independentzia lortzeko". Aterabiderik gabeko azpi-estrategia. Jauzi kualitatiboaren premia ezinbestekoa da. Nafarroako Erresuma giza-eskubideen kontra, bortxara okupatua da, baina bizirik dago, euskal herriak -**subjektu politikoak**- inoiz ez du arbiatu, ez errenuntziorik egin, besteak beste, monumentuan eta etengabeko praktika politikoan frogaturik dagoen bezala. Hots, oinarri politiko estrategikoa. Horretarako, dibortzioa da gaingitu beharrekoa. Noski, hori dena **hutsaren hurrengoa** dateke, baldin eta atzean ez balego bere libertatearen alde deliberatua den herria... Erronka horretan dago EH.]

*Pro libertate Patria, gens libera state.* Aberria libre izan dadin, jendeak aske izatea da gakoa, eta ‘aske’ izate hori, justizia eta elkartasunez gain, gaur egun hameka osagaiz elikatzen da: maila estrategikoari eutsiz, afera sozialetan adi egoteaz, partaidetzaz, feminismoz, ekologiaz, sorkuntzaz, ‘ni-gu’-ren arteko orekaz, jaiaren zentzuaz... Benetako **filosofia politiko** bat. Gainera, bi kontzeptu horiek uztartzean, **estrategia maila**-ren oinarria nabarmentzen da; hots, **helburu eta bitartekoak uztartzen dituen jarduera**. Helburuak argitzen eta elikatzen dituelarik bitartekoak eta hauek **prefiguratz**en, mamitzen eta ahalbideratzen helburua, indarren arteko erlazioan behar bezala txertatuta. Elkar elikatzen duen jarduera dialektikoa, estrategikoa.

[Iparla Argitalpenak](#)